


# GERNIKA-LUMO

## Datu orokorrak

### 2010eko rankina

1. BERMEO
2. ORIO
3. AZPEITIA
4. LEKEITIO
5. OÑATI
6. ZARAUTZ
7. ONDARROA
8. BEASAIN
9. ARRASATE
10. BERGARA
11. AZKOITIA
- 12. GERNIKA-LUMO**
13. TOLOSA
14. HERNANI
15. SORALUZE
16. HONDARRIBIA
17. ELGOIBAR
18. LESAKA
19. DONOSTIA
20. PASAIA
21. ORDIZIA
22. AMURRIO

Herrialdea	Ezagutza	Alkatetzan dagoen alderdia
Bizkaia	%86,6	EA
Eremu administratiboa	Euskaldunak	Aurreko legegintzaldietan
EAE	%69,3	EAJ
Eremu juridikoa	Ia euskaldunak	
Ofiziala	%17,3	



## BEREZIKI AZPIMARRAGARRIA

Kontratatutako langile berri guztiak euskaldunak izan daitezen erabakia hartu da, erabaki traktore eta eragin biderkatzailekoa. Erabaki hau hartu herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko pauso garrantzitsua ematen da, euskarazko zerbitzua ziurtatzen delako. Bestalde, aurrerantzean langile erdaldunak euskalduntzeko ahaleginik ez da egin behar izango, baliabideak normalizaziorako beste zeregin batzuetara bideratzeko aukera eskainiz.

### **Positiboki nabarmentzekoa**

Ordenantza, plan orokorra eta euskara zerbitzua ditu.

Aurrekontuak %2a gainditzen du.

Langile kontratatu berri guztiak euskaldunak izan daitezen erabakia hartu da.

Langile guztiak euskara planean txertatuta daude.

Langile kualifikatuei (idazkaria, kontuhartzailea eta arkitektoa) 4HE ezarri zaie.

Azpikontratazio guztietan (bai herritarrei zerbitzu zuzena eskaintzen ditenei eta Udalari aholkularitza

juridikoa eta teknikoa eskaintzen dietenei) zerbitzua euskaraz izan dadin erabakia hartu da.

Merkatariei eta lan munduan enpresei laguntza teknikoa eskaintzen zaie euskararen erabilera areagotzeko.

# GERNIKA-

## **Hobetu beharrekoa**

Komunikazio  
ofizialetan eta  
hizkuntza-paisaian  
euskara lehenesteko  
erabakia hartua  
badago ere, ez da  
beti betetzen.

Merkatariei  
euskararen erabilera  
areagotzeko ez zaie  
lagntza  
ekonomikorik  
eskaintzen  
(errotulazioa  
euskaraz  
jartzeagatik, esate  
baterako).

14 sailetik 5ek ez  
du euskaraz  
funtzionatzen.

Kaleetako  
obretako txartelak  
eradara hutsez  
behatu dira.

Udalaren  
aldizkarian erdara  
nagusi da.

Sustapenerako neurriak		Hizkuntza-eskubideen berme juridikorako neurriak	
Udalerrirako euskara-plan orokorra du.	✓	Euskararen ordenantza du.	✓
Aurrekontua (euskararen normalizazioan eragiteko gutxieneroa % 2 )	%3,08	Hizkuntza-paisaian euskararen presentzia bermatzeko erabakia hartu du.	✓
Euskara zerbitzua dago.	✓	Diruz lagundutako talde eta entitateek errotulazioa euskaraz izan dezaten erabakia hartu du.	✓
Barne erabilera plana du: langile guztiak barnebiltzen ditu eta epe zehatzak ditu.	✓	Langile kontratatu berri guztiak elebidunak izan daitezen erabakia hartu du.	✓
Euskalduntzeko erraztasunak eskaintzen zaizkio langileari.	✓	Udal langile guztiak euskarazko zerbitzua eskaintzeko epeak erabaki dituzte.	✓
0-3 urteko hezkuntza gutxienez euskaraz eskaintzen du.	✓	Maila tekniko kualifikatuko langileei EGA edo HE altuagoa ezartzeko erabakia hartu du.	✓
Euskalgintza diruz lagutzen du.	✓	Udalak komunikazio ofizialetan euskararen presentzia bermatzeko erabakia hartu du, gutxienez erdararen maila berean.	✓
Euskalgintzari azpiegitura edo bestelako laguntzak eskaintzen dizkio.	✓	Herritarrekiko harreman zuzenei dagokienez, bi azpikontrata nagusietan zerbitzua elebiduna izan dadin erabakia hartu du.	✓
Herritarrek euskara ikasteko beka unibertsal sistema dute.	✓	Udalari aholkularitza juridikoa eta teknikoa eskaintzen dioten enpresek egin beharreko txostenak euskaraz egitea erabaki du.	✓
Euskararen erabilera areagotzeko merkatariei diru laguntzak eskaintzen dizkie.	✗	Herritarren aholkularitzarako zerbitzu espezifikoek eskaintzen duten zerbitzua euskaraz ematea erabaki du.	✓
Euskararen erabilerarekin lotuta merkatariei laguntza profesionala eskaintzen die.	✓	0-3 urteko hezkuntzarako eskaintzaren berri emateko publizitatean euskarazkoa hobestea erabaki du.	
Enpresen euskalduntzean eragiteko egitasmoa abian dago.	✓		

## ONDORIOAK

Eraginkorra izan nahi duen politika publiko orok bi motatako neurriak garatu behar ditu: sustapenerako neurriak eta hizkuntza-eskubideen bermerako arauzko neurriak. Lehenengoak diru laguntza eta zerbitzu eskaintza dira nagusiki eta bigarrenak erabaki mailako neurri erregulatuak eta betearazleak. Udalek lehenak errazago inplementatzen dituzte borondatean oinarritzen direlako eta horiek ez gauzatzea ondoriorik ekartzen ez duelako. Udalek bigarrenak hartzeko ausardia gutxiago dute horrelakoak hartzeko orduan exijentzia handiagokoak baitira eta izaera betearazlea dutelako.

Egungo marko juridikoak topeak jartzen dizkie euskara normalizatu eta lehenetsi nahi duten Udalei. Ordenantza bidez berma daitekeena ziurtatzera jo behar da, hizkuntz-eskubideen garapena borondate politiko ezaren esku gera ez dadin. Baina udalerrri euskaldunek euskara lehetsi eta euskara hutsez aritzea oztopatzen duen markoa izanik, berau gainditzeko trakzio lana egitea beharrezkoa da. Zentzu honetan eta Gernika-Lumok duen euskaldun tasari eta arnaguneek duten izaera estrategikoari erreparatuz, UEMA beste udalerrri euskaldunekin batera sinergiak sortzea klabea da euskararen normalizazioaren ikuspegitik.

### Egoera soziolinguistikoaren arabeko rankina

5. ORIO (2)
6. BAZTAN (40)
7. AZKOITIA (11)
8. BERMEO (1)
9. OÑATI (5)
<b>10. GERNIKA-LUMO (12)</b>
11. ZARAUTZ (6)
12. TOLOSA (13)
13. BERGARA (10)

### Estatusaren arabeko rankina

9	ARRASATE
10	BERGARA
11	AZKOITIA
<b>12</b>	<b>GERNIKA-LUMO</b>
13	TOLOSA
14	HERNANI
15	SORALUZE
16	HONDARRIBIA
17	ELGOIBAR

## 2006-2010 azterketa konparatiboa

### Erabaki orokorrak

Ez da aldaketarik eman: ordenantza, plan orokorra eta euskara zerbitzua ditu. Euskararen aurrekontua %2tik gorakoa da.

### Hizkuntza paisaia

Euskara lehenesteko erabakia hartua dago, baita diruz lagundutako entitateek hizkuntza-paisaia euskaraz izan dezaten ere, 2006an bezala. Erabakitakoa, ordea, ez da sistematikoki betetzen, 2006an betetzen ez zen bezala. Kale izenetako txartelak euskara hutsez daude, ez da aldaketarik eman. Zamaketa oharrei dagokionez ez da aldaketa esanguratsurik eman. Batzuk euskara hutsez eta beste batzuk oreklaz daude, erabakia betetzen ez delarik. Gauza bera geratzen da udaletxe barruko errotulazio formalarekin. Erabakitakoa betetzen ez bada ere, 2006arekin alderatuz aurrera egin da: 2006an 6ak orekaz behatu ziren, 2010ean 3 orekaz eta 3 euskara hutsez. Errotulu informala euskara hutsez egotetik euskaraz nabarmenago egotera pasa da, atzera egin da beraz. Eta 2006an bezala, obra txartelak erdara hutsez behatu dira 2010ean ere.

### Udal langileak

Atal honetan aurrera egin da: 2006an 14 sailetik 5ek funtzionatzen bazuen euskaraz 2010ean 9k funtzionatzen du euskaraz. Gainerakoan, 2006an bezala, langile kontratatu berri guztiak euskaldunak izateko erabakia hartu da, langileei euskalduntzeko erraztasunak eskaintzen zaizkie eta langile guztiak daude erabilera planetan sartuta.

Harrera postuetako langileek euskaraz artatu dute herritarra, 2006an bezala, baina udaltzainen artean atzera egin da: 6tik 6k erantzun zuen euskaraz 2006an, 2010ean 2k erdaraz erantzun du.

### Udalaren komunikazioa

Komunikazio ofizialetan euskara lehenesteko erabakia hartua dago eta lagundutako hedabideetan euskara erabil dadin erabakia hartua dago, 2006an bezala. Behatutako elementuetan, aldiz, ez da sistematikoki betetzen hartutako erabakia, 2006an gertatzen zen bezala. Bandoak, isunak ezartzeko inprimakia, webgunea eta etxera helarazitako zergak orekaz daude, alegia, erabakia ez da betetzen. Eskaera orokorretarako inprimakian, aldiz, euskara nabarmenago dago. Kasuri okerrean Udalaren aldizkarian topa dezakegu, erdara nagusi baita aldizkari horretan.

### Beste zerbitzu eta azpikontratak

Ez da aldaketa esanguratsurik eman. Herrian azpikontratazio bidez eskaintzen diren zerbitzuak euskaraz izan daitezkeen erabakia hartua dago. Behatutako elementuetan ere ez da aldaketarik eman: zaborrontzietako oharak, autobus geltokietakoak eta kiroldegiko ohar taulakoak orekaz daude, 2006an bezala. Gogoan izanda hizkuntza-paisaia euskara lehenesteko erabakia hartua dagoela, azpikontratazioetan ere hori ziurtatu beharko litzateke.

### Udalaren kultur ekintzak

Aurrera egin da: 2010ean behatutako 3 ekintzak euskara hutsezkoak izan dira eta publizitatea ere halakoxea. 2006an publizitatea euskaraz nabarmenago behatu zen.

### Hezkuntza 0-3 urte

Ez da aldaketarik eman: euskara hutsezko eskaintza dago.

### Euskalgintza

2006an bezala euskalgintza diruz eta azpiegituraz laguntzen da eta herritar orok euskara ikasteko beka sistema dago indarrean.

Beka sisteman aurrera egin da, 2006an soilik talde bereziei eskaintzen baitzizaien laguntza.

### Merkataritza eta lan mundua

Merkatariei eta enpresei euskararen erabilera areagotzeko laguntza teknikoa eskaintzen zaie, 2006an bezala. 2010ean helburu horretarako merkatariei eskaintzen zitzaizkien diru laguntzak kendu dira, atzera egin da.

### Kirola eta aisia

Ez da aldaketarik eman: haur eta helduek pratika handieneko kirola euskaraz egiteko eskaintza dute eta haurrendako aisialdia euskara hutsez eskaintzen da.



## **ONDORIOAK**

4 urtetan aurrepauso apala egin da. Langileen atalean, kultur eskaintzan eta euskalgintzari esleitutako laguntzetan emandako aurrerapausoetan kokatzen da hau. Gernika-Lumoko Udalean normalizazio funtzionala bideratuta egonik, sistematikoki euskara lehenesteko neurriak hartzea izanen da aurrera egiteko bidea, erabakitako betetzearekin batera. Bestalde, normalizazio geografikoan trakzio lana egitea dagokie maila honetan dauden udalei.

# HERNANI

## Landa lana



HARRERA

KIROLDEGIA

HIRIGINTZA





